

## Gipuzkoako Foru Aldundiaren bisita Mondragon Unibertsitatara - Errektorearen hitzaldia-

2008/01/16

Egun on guztioi eta eskerrik asko Markel Olano ahaldun nagusiarekin eta nirekin ekitaldi honetan izateagatik.

Gure agerpenaren arrazoia Gipuzkoako Foru Aldundiak Mondragon Unibertsitatean egindako bisita instituzionala da. Zinez eskertzen diot Aldundiari bisitaldia, eta espero dut azkena ez izatea, berandu barik gure artean izatea berriro.

Bisitaren helburu nagusia erakunde horrek, Gipuzkoaren garapena eta sustapena eginkizun dituenak, gu gehiago eta hobeto ezagutzea da. Gure errealitatearen, gure proiektuen eta gure etorkizunaren ikuspegi zuzena izatea.

Horren guztiaren berri dute Aldundiko arduradunek, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta gure Unibertsitateak aspalditik jarduten dute elkarlanean. Baina elkarlanari eutsi eta Aldundia gure eboluzioaren parte-hartzaile eta agente aktibo izatea nahi dugu.

Bi erakundeen arteko lankidetzak beste urrats bat da, funtsezko zutabeetako bat, Unibertsitatearen helburu estrategikoa lortzeko. Horri esker, bideragarria da Unibertsitatearen, zentro teknologikoen, enpresen, erakundeen eta instituzio publikoen arteko konexioa. Agente eta erakundeen lanak, haien arteko elkarreraginak, batera jarduteko gaitasuna sendotzen du, zalantzarik gabe, eta bataren eta bestearen beharrak betetzeko lagungarria da.

Unibertsitatea ezin da erakunde isolatua izan, ez baita errealitate estankoa, erakunde bizi eta dinamikoa baizik, eta derrigortuta dago herrialdeko gainerako agente sozial eta ekonomikoekin harremanak izatera.

Mondragon Unibertsitatearen kasuan, hori errealitatea da. Etengabe eboluzionatzeko bokazio argia duen unibertsitatea gara eta egokitzeko gaitasun handia dugu. Aldaketara egokitzeko. Gizartearen premietara egokitzeko, premia horiek aurrez ikusi eta betetzeko gaitasunari esker. Eta hori, zertarako? Etorkizuneko profesionalak, gure herrialdeko profesionalak, bikaintasunaren bidean trebatzeko gai izateko. Horixe da Mondragon Unibertsitatearen bidea: bikaintasuneko prestakuntza.

Gauza asko egiteko gai izango diren profesionalak prestatu behar ditugu (lider izateko, sortzeko, berritzeko, gauzatzeko...), baina, batez ere, gizarteak eskatzen duena eta behar duena betetzeko gai diren profesionalak prestatu behar ditugu.

Horretarako, Unibertsitateak badaki enpresen eta erakundeen sentsibilitateekin elikatu behar duela, merkatuaren eta gizartearen beharrei aurre egiteko. Gure Unibertsitatearen oinarria enpresekin eta erakundeekin harreman handia izatean datza, hasiera-hasieratik. Horri esker, gizartearen eta sistema ekonomiko-produktiboaren premiak ikusteko aukera garbia izan dugu. Horixe da gure erredua eta horri eutsiko diogu.

Era berean, Unibertsitate berritzailea gara. Berritzailea ingurunearekin ditugun harremanetan eta berritzailea irakasteko metodologian. Gure metodologiaren bidez, ezagutzak ez ezik, lan egiteko behar izango dituzten jarrerak, balioak eta gaitasunak irakasten dizkiegu geure ikasleei. Gero eta pertsona malguagoak behar dira, askotariko lanei aurre egin eta egokitzeko. Gure ereduaren oinarriak hiru dira: gaitasun teknikoa, arazo errealei aurre egiteko gaitasun pertsonalen transmisioa eta, azkenik, komunikatzeko eta eleaniztasunerako gaitasunaren transmisioa.

Badakigu, gainera, ikerkuntza ere garrantzi handikoa dela Unibertsitatean. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitatean ikertzeko jardura sendotzen eta hobetzen jarraitu nahi dugu. Izan ere,



ikerkuntzaren garapena Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza-sistemaren oinarrietako bat da.

- 3.702 ikasle
- Lehen eta bigarren zikloetako 24 titulazio: ingeniartzakoak, enpresa-zientzietakoak eta hezkuntzakoak
- Graduondoko 29 titulu eta 5 doktoretza programa
- 2002ko promozioko ikasleen laneratze-indizea % 98,9koa da.

Gure unibertsitateko zenbait datu dira horiek, gure jarduera abalatzear gain, gure unibertsitate-inguruan hazten eta eboluzionatzen jarraitzea animatzen gaituztenak. Espezializazioa eta espezifikotasuna eman eta proiektu berezitudun unibertsitatea izatea eragin dutenak.